

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### KULTURA ETA KIROL SAILA

#### Urriaren 25eko 295/2024 Foru Agindua. "Ignacio Aldecoa Nazioarteko Ipuin Saria" gaztelaniazko 53. ipuin-lehiaketako saria ematea

Otsailaren 27ko 47/2024 Foru Aginduaren bidez, "Ignacio Aldecoa Nazioarteko Ipuin Saria" gaztelaniazko 53. ipuin-lehiaketaren deialdia onartu zen.

Saria jaso ahal izateko lanak aurkezteko epea amaituta, maiatzaren 13ko 130/2024 Foru Aginduaren bidez izendatutako epaimahaiak lehiaketa honen epaitza eman du, horretarako egindako aktaren arabera.

Aginduzko txostenak ikusi dira.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Juan José Montiel Gálvez (BP10017581) jaunari "Ignacio Aldecoa Nazioarteko Ipuin Saria" gaztelaniazko 53. ipuin-lehiaketako saria ematea, 12.000,00 eurokoa.

Bigarrena. Gastu hori babesten duen aurrekontu-aplikazioa 70104. G/332701/47900704 da, «Literatura-sariaren deialdiak», Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldirako gastu-aurrekontuko, 2024. ekitaldirako luzatua.

Hirugarrena. Emandako sariaren zenbatekoa, dagokion atxikipena egingo zaiona, ebazpen hau onartu ondoren ordainduko da.

Laugarrena. Saria emateko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaio sarituari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta ALHAOn argitaratuko da.

Bosgarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Kultur eta Kirol Saileko foru diputatu titulari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan. Bestela, zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 25a

*Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua*  
ANA M. DEL VAL SANCHO

*Kultura zuzendaria*  
INMACULADA SÁNCHEZ ARBE